


120 Recomendaciones para reducir el uso y los costes de los envases y embalajes

SI 13

Bilgarrien eta ontzien erabilera eta kostuak murrizteko 120 gomendio

Descubra nuevas formas de ahorrar
Aurki itzazu aurrezteko beste era batzuk



Resumen

Este Guía le ayudará a reducir los costes y el empleo de materias primas relacionadas con el envase, manipulación y almacenamiento, sin afectar a las necesidades básicas de envase, por ejemplo en relación con la protección de los productos. Las empresas que gestionan adecuadamente sus envases y embalajes, ahorran dinero y obtienen mayores beneficios, además de minimizar el uso de valiosos recursos y reducir el volumen de residuos que se envían a los vertederos.

La mayor parte de las recomendaciones que se ofrecen en esta Guía se refieren a la optimización del envase y los materiales de envase. Adoptar alguna de estas ideas puede contribuir a reducir los requisitos legales que debe cumplir su empresa en lo que respecta al envase. Otras recomendaciones se refieren al uso secundario de las materias primas que quedan fuera del marco legal. Comprobará que estas recomendaciones le ayudarán a tener una nueva visión de sus actividades y obligaciones globales, además de ayudarle a reducir los costes de explotación.

Las ideas que aquí se describen se pueden aplicar a todas las empresas, independientemente de su tamaño. Asimismo, las empresas que no están sujetas a la normativa específica para residuos de envase y embalaje pueden beneficiarse de numerosas ventajas. Si acaba de empezar a buscar formas de reducir los costes derivados del envase, esta Guía le indicará por dónde empezar y le ayudará a ahorrar dinero de forma rápida y sencilla. Asimismo, si ya ha adoptado medidas, le servirá como fuente de nuevas ideas.

Utilice esta Guía como una herramienta rápida de referencia con el fin de ayudar a su empresa a desarrollar un enfoque sistemático en lo que respecta a la gestión del envase. El servicio de Información Ambiental gratuito para la empresa vasca (IHOBE-Line) en el teléfono 900 15 08 64, le puede ofrecer información adicional a esta Guía, así como orientación sobre los pasos que se deben seguir.

La Sociedad Pública, IHOBE S.A., desea agradecer la revisión técnica realizada por la Fundación Gaiker, y la búsqueda de ejemplos en empresas vascas.

Laburpena

Gidaliburu honek bilgarriekin, manipulazioarekin eta biltegiatzearekin zerikusia duten kostuak murrizten lagunduko dizu, bilgarrien oinarritzko beharrei (adibidez, produktuak babestu beharri) eragin gabe. Ontziak eta bilgarriak behar bezala kudeatzen dituzten enpresek dirua aurreztu eta mozkin handiagoak lortzen dituzte, dirua balio duten baliabideak erabiltzea minimizatu eta hondakindegietara bidaltzen diren hondakinen bolumena murrizteaz gain.

Gidaliburu honetako gomendio gehienak bilgarriaren eta bilgarrien materialen optimizaziora buruzkoak dira. Ideia horietakoren bat txertatzeak, zure enpresak bilgarriei dagokienez bete behar dituen lege-betebeharrak murriztea eragin dezake. Beste gomendio batzuk lege-esparrutik kanpo dauden lehengaien bigarren mailako erabilerari buruzko gomendioak dira. Gomendio horiek zure jardueren eta betebeharren beste ikuspegi bat izaten lagunduko dizutela ohartuko zara, ustiapen-kostuak murrizten laguntzeaz gain.

Hemen deskribatzen diren ideiak edozein enpresatan aplikatzeko modukoak dira, tamaina edozein dela ere. Halaber, ontzi- eta bilgari-hondakinentzako berariazko araudia bete behar ez duten enpresek ere abantaila ugari lortuko dute. Bilgarriekin zerikusia duten kostuak murrizteko moduak bilatzen orain hasi bazara, Gidaliburu honek nondik hasi adieraziko dizu eta dirua azkar eta erraz aurrezten lagunduko dizu. Dagoeneko neurriak hartu baldin badituzu, berriz, beste ideia batzuk izateko baliagarri izango duzu.

Gidaliburua zure enpresari bilgarrien kudeaketari dagokionez ikuspegi sistematikoa garatzen laguntzeko erabil ezazu. Gidaliburuari edo eman beharreko urratsei buruzko informazio gehiago behar izanez gero, Euskal enpresarentzako doako Ingurugiro Informazioko zerbitzuan (IHOBE-Line), 900 15 08 64 telefonon, emango dizute.

IHOBE S.A. Sozietate Publikoak eskerrak eman nahi dizkio Gaiker Fundazioari berrikuspen teknikoa egiteagatik eta euskal enpresetako adibideak aurkitzeagatik.

Hace poco menos de un año el Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco publicaba el primer libro fruto del acuerdo suscrito con el Programa Británico de Producción Limpia. Me estoy refiriendo al documento "200 Recomendaciones para la reducción de residuos" del que se editaron 5.000 ejemplares que se han distribuido entre el empresariado vasco. La excelente acogida que tuvo y la constante demanda del mismo ha provocado que se agotase y hayamos tenido que realizar una segunda edición que ya está disponible.

Continuando con esta nueva línea de apostar por documentos prácticos y sencillos, les presentamos esta nueva publicación titulada "120 Recomendaciones para reducir el uso y los costes de los envases y embalajes" que estoy seguro tendrá la misma acogida que el primero.

Contaminar menos también significa evitar la generación de residuos y esto supone diseñar envases acordes a las verdaderas necesidades del producto, optimizar el uso de las materias primeras en los embalajes, reutilizar los envases...etc. Quiero invitarle a descubrir nuevas ideas que contribuirán a mejorar el Medio Ambiente y que le van a evitar costes innecesarios a su empresa.

Por último, expresar mi agradecimiento a los Departamento de Comercio e Industria y de Medio Ambiente del Reino Unido por la concesión del permiso de publicación de este documento, que ha sido adaptado y completado con ejemplos reales de empresas vascas.

Orain urtebete eskas Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak Erresuma Batuko Produkzio Garbirako Programarekin sinatutako akordioari esker, lehen liburua argitaratu zuen. Hain zuzen "200 Gomendio hondakinak murrizteko" izena du eta euskal enpresarioei banatutako 5.000 ale plazaratu ziren. Harrera bikaina izan zuelako eta etengabe eskatu zigutelako, liburua agortu egin zen eta jadanik prest dagoen bigarren argitalpena egin behar izan da.

Dokumentu erabilgarri eta sinpleen aldeko apustua egiteko bide berri honi jarraituz, orain beste lan hau aurkezten dizuegu, "120 Gomendio ontzi eta bilgarrien erabilpena eta kostuak murrizteko" izenekoa, eta seguru nago beste liburuari bezain harrera ona egingo zaiola.

Gutxiago poluitzeak hondakinak ez sortzea ere esan nahi du, eta horrek produktuaren egiazko premietara moldatutako ontziak diseinatzea, bilgarrietako lehengaiak optimizatzea, etab. ere esan nahi du. Ingurugiroa hobetu eta zure enpresan alferrikako kostuak saihesteko ideia berriak aurkitzera gonbidatu nahi zaitut.

Azkenik, Erresuma Batuko Merkataritza eta Industria eta Ingurugiroko Departamentuei eskerrak eman nahi dizkiet, liburu hau argitaratzeko baimena emateagatik. Argitu beharra dago liburua euskal enpresetako egiazko adibideak ipinita moldatu eta osatu egin dela.

F.J. Ormazabal

Consejero del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailburua



Esta nueva Guía acierta plenamente al afirmar que *“las empresas que gestionan adecuadamente sus envases ahorran dinero y obtienen mayores beneficios además de minimizar el uso de valiosos recursos”*.

El Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco y su Sociedad Pública de Gestión Ambiental, IHOBE, S.A. apuestan firmemente por esta filosofía. Minimizar residuos reduce la contaminación y además ahorra costes a la empresa.

La Guía “120 Recomendaciones para reducir el uso y los costes de los envases y embalajes” aporta numerosas ventajas a las organizaciones que la utilicen: ahorro de materias primas, optimización de envases, cumplimiento de requisitos legales, reducción de los costes de explotación.

En definitiva esta Guía permitirá a las empresas vascas realizar una adecuada gestión de todos los aspectos relacionados con los envases y embalajes, además de indicarles las entidades especializadas en el asesoramiento de la gestión ambiental de los mismos.

Gidaliburu berri honek bete-betea asmatu du “beren ontziak egoki kudeatzen dituzten enpresek dirua aurrezten dute, eta bitarteko baliotsuak erabiltzea minimizatzeaz gain, mozkin handiagoak lortzen dituzte” dioenean.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eta bere IHOBE, S.A. Ingurugiroa Kudeatzeko Sozietate Publikoak filosofia horren alde egin dute apustu. Hondakinak minimizatuta poluzioa murrizten da, eta gainera enpresetako kostuak aurrezten ditu.

“120 Gomendio ontzi eta bilgarrien erabilpena eta kostuak murrizteko” Gidaliburuak abantaila handiak eskaintzen dizkie erabiltzen duten erakundeei: lehengaietan aurrezte, ontziak optimizatzea, lege-baldintzak betetzea eta ustiapen-kostuak murriztea.

Azken batean, Gidaliburu honi esker euskal enpresek ontzi eta bilgarriei buruzko alderdi guztiak egoki kudeatu ahal izango dituzte. Horrez gain, horien ingurugiro-kudeaketarako aholkularitzan aditu diren erakundeak zein diren ere jakinarazten zaie.

Esther Larrañaga

Viceconsejera de Medio Ambiente
del Gobierno Vasco

Eusko Jaurlaritzako
Ingurugiro Sailburuordea



Índice

Reducción de los costes de envase y embalaje

- ¿Qué es el envase?
- ¿Qué son los residuos del envase?
- ¿Cómo se utiliza esta Guía?
- ¿Por qué reducir el envase?

Siete buenas razones

Recomendaciones para ahorrar en los costes

Suministro y traspaso de envase

El envase que suministra – práctica y uso de materiales

Si utiliza bidones...

Si utiliza palets...

Compruebe la información que proporciona a sus clientes

Considere los aspectos referidos al transporte

Recepción del envase

Observe lo que recibe

Manipulación del envase

Práctica adecuada en las propias instalaciones

Si utiliza bidones...

Si utiliza palets...

Trate los procedimientos de manipulación con los clientes y su plantilla

Reutilización, reciclaje y eliminación del envase 20

Segrege los residuos

¿Puede reutilizarse?

Si utiliza bidones...

Comparta sus ideas con los demás...

Conclusión

Anexos

Anexo 1. Productos y accesorios que podría reducir al máximo.

Anexo 2. Direcciones útiles

Anexo 3. Minimización de residuos en origen – un ejemplo industrial

Agradecimiento

Este documento es una traducción adaptada de la versión original inglesa “Unpack those hidden savings. 120 tips on reducing packaging use and costs” editado en 2000 por el “Environmental Technology Best Practice Programme” o “Programa de Mejores Prácticas y Tecnologías Ambientales” promovido y financiado conjuntamente por el Departamento de Comercio e Industria (dti) y el Departamento de Medio Ambiente del Reino Unido. La Sociedad Pública de Gestión Ambiental, IHOBE, S.A. del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco agradece a la Dirección Ambiental del dti el permiso de publicación del documento.

Aurkibidea

Ontzi eta bilgarrien kostuak murriztea

Bilgarria zer da?

Bilgarri-hondakinak zer dira?

Gidaliburu hau nola erabili behar da?

Bilgarriak zergatik murriztu behar ditut?

Zazpi arrazoi bikain

Kostuetan aurrezteko gomendioak

Bilgarri-hornidura eta -eskuladatzea

Hornitzen duzun bilgarria - materialen praktika eta erabilera

Bidoiak erabiltzen badituzu...

Paletak erabiltzen badituzu...

Egiazta ezazu bezeroei ematen diezun informazioa

Garraioari dagozkion alderdiak kontuan har itzazu

Bilgarriak hartzea

Hartzen duzuna azter ezazu

Bilgarrien manipulazioa

Ohitura operatibo bikainak norbere instalazioetan

Bidoiak erabiltzen badituzu...

Paletak erabiltzen badituzu...

Manipulazio-prozedurak bezeroekin eta zure langileekin azter itzazu

Bilgarria berriz erabiltzea, birziklatzea eta botatzea

Hondakinak bereiz itzazu

Berriz erabil al daiteke?

Bidoiak erabiltzen badituzu...

Azaldu zure ideiak besteei...

Ondorioa

Eranskinak

1. eranskina. Murriz ditzakezun produktu eta osagarriak

2. eranskina. Helbide erabilgarriak

3. eranskina. Hondakinak jatorrian minimizatzea - Industriako adibidea

Esker onez

Dokumentu hau jatorrizko ingelesezko "Unpack those hidden savings. 120 tips on reducing packaging use and costs"ren itzulpena da. Jatorrizkoa 2000an "Environmental Technology Best Practice Programme" edo "Ingurugiroko Praktika eta Teknologia Onenen Programa"k argitaratu zuen Erresuma Batuko Merkataritza eta Industria Sailak (dti) eta Ingurugiro Sailak batera sustatu eta finantzatuta.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Ingurugiroa Kudeatzeko Sozietate Publikoa, IHOBE, S.A.k eskerrak eman nahi dizkio dti-ko Ingurugiro Zuzendaritzari argitaratzeko emandako baimenagatik.



Reducción de los costes de envase y embalaje

¿Qué es el envase?

El envase puede intervenir en todas las fases de un proceso, desde las materias primas hasta los productos procesados. En el uso normal de la palabra, envase se utiliza para describir los materiales que contienen y/o protegen la mercancía, facilitan su manipulación y distribución, y cumple una labor de identificación de los productos. Se emplea una amplia variedad de materiales, incluyendo papel, cartón, plástico, cristal, metal, madera, cerámica y tejidos.

Además del uso habitual del término envase, existen definiciones jurídicas para describir el envase y los residuos de envase, estas se incluyen en la Directiva de la Unión Europea sobre Envase y Residuos de Envase (94/62/CEE), y en la Ley 11/1997 de 24 de abril, relativa a Envases y Residuos de Envases.

El objetivo de estas normativas consiste en reducir el volumen global de residuos de envase. En este sentido, la Confederación Empresarial Vasca, **Confebask**, ha elaborado tres documentos sobre los envases "Guía Técnica de Gestión de Envases y Residuos de Envases. 1998", "Las 100 mejores preguntas y respuestas acerca de la Ley 11/97 de Envases y Residuos de Envases. 1999" y "Claves prácticas para reducir los Envases y Residuos de Envases. 1999". Estos documentos pueden facilitar el cumplimiento de los objetivos que se recogen en los textos legislativos de aplicación estatal. Puede consultar estos documentos para obtener una aclaración acerca del término "envase" en relación con cualquier requisito que deba cumplir en virtud de las normativas. El Servicio de Información Ambiental para la empresa vasca **IHOBE-Line** (Teléfono: **900-15.08.64**) le proporciona también información sobre las definiciones legales.

Existen tres categorías primarias de envase:

- envase primario (ventas) que envuelve a un producto en el punto de adquisición por

Ontzi eta bilgarrien kostuak murriztea

Bilgarria zer da?

Bilgarriak, lehengaietatik hasi eta prozesatutako produktuetaraino, prozesuaren fase guztietan egon daitezke. Bilgarri hitza salgaiak biltzen dituzten edota babesten dituzten, horien manipulazioa eta banaketa errazten duten eta produktuak identifikatzeko erabiltzen diren materialak izendatzeko erabili ohi da. Material ugari erabiltzen da horretarako, hala nola papera, kartoia, plastikoa, beira, metala, zura, zeramika eta ehunak.

Bilgarrien ohizko erabilera horrez gain, badaude bilgarriak eta bilgarri-hondakinak deskribatzeko definizio juridikoak ere. Bilgarri eta Bilgarri Hondakinei buruzko Europako Batasuneko Arteztarauan eta Bilgarri eta Bilgarri Hondakinei buruzko apirilaren 4ko 11/1997 Legean daude jasota.

*Araudi horien helburua bilgarri-hondakinen bolumen osoa murriztea da. Horri dagokionez, **Confebask** Euskal enpresarioen elkarteak bilgarriei buruzko hiru dokumentu egin ditu: "Bilgarriak eta Bilgarri Hondakinak Kudeatzeko Gidaliburu Teknikoa. 1998", "Bilgarrien eta Bilgarri Hondakinen 11/97 Legeari buruzko 100 galdera onenak. 1999" eta "Bilgarriak eta Bilgarri Hondakinak murrizteko ideia praktikoak. 1999". Agiri horiek Estatuan aplikatzekoak diren legeetan jasotako helburuak betetzen lagun diezazukete. Araudia dela eta bete behar duzun edozein alderdiri dagokionez "bilgarri" terminoaren esanahia zein den jakiteko, agiri horietan begira dezakezu. **IHOBE-Line** euskal enpresarentzako Ingurugiro Informaziorako Zerbitzuak (Telefona: **900 15 08 64**) ere, lege-definizioei buruzko informazioa ematen du.*

Bilgarrien oinarritzko hiru kategoria daude:

- lehen mailako bilgarria (salmentak): erosketapuntuan erabiltzaileari/konsumitzaileari pro-

parte del usuario / consumidor, por ejemplo, una botella, una bolsa de plástico o una cinta alrededor de una revista;

- envase secundario (agrupado) que agrupa un número de artículos juntos hasta el punto de venta, por ejemplo, una caja o un precinto alrededor de una serie de artículos;
- envase terciario (transporte) que permite la manipulación y transporte de una serie de artículos agrupados de forma unitaria, por ejemplo un palet o enfajillado / película retráctil.

Si revisa sus envases, comprobará que hay numerosos productos y accesorios que resulta fácil pasar por alto – véase el listado orientativo en el Anexo 1.

duktua biltzeko erabiltzen dena; adibidez, botila, plastikozko poltsa edo aldizkaria inguratzeko xingola.

- bigarren mailako bilgarria (multzokatua) sal-tokiraino artikulua-multzoa eramateko erabiltzen dena; adibidez, kaxa edo artikulua batzuk inguratuaz dituen itxitura.
- hirugarren mailako bilgarria (garraioa) elkarrekin bilduta artikulua batzuk manipulatzeko eta garraiatzeko erabiltzen dena; adibidez, paleta edo film erretraktila.

Zure bilgarriak aztertzen badituzu, kontuan hartzen ez duzun produktu eta osagarri ugari dagoela ohartuko zara – ikus 1. Eranskinean zerrenda.



¿Se disparan sus gastos? / Zure gastuek gora egiten al dute?

¿Qué son los residuos del envase?

A los efectos de la presente guía (y sin valor de definición legal), se puede considerar que los residuos de envase se generan, principalmente, desde dos fuentes:

- Derroche de envase nuevo si se utiliza más del necesario para garantizar, transportar, contener o comercializar el producto. Por

Bilgarri-hondakinak zer dira?

Gidaliburu honi dagokionez (eta legezko definizio-baliorik gabe), bilgarri-hondakinaek, batez ere, bi sorburu dituztela esan daiteke:

- Bilgarri berrien zarrastelkeria produktua babesteko, garraiatzeko, gordetzeko edo komertzializatzeko behar baino bilgarri gehia-

ejemplo, se considera residuo desaprovechado, una película retráctil de doble capa si con una capa sencilla se hubiera podido proteger al producto de forma adecuada.

- Recepción de envase que entra en su empresa y sale de ella en forma de residuo traducido en un coste de eliminación. Esto incluye productos de envase que no reúnen las especificaciones adecuadas, exceso de envase durante el transporte o materiales dañados durante el transporte.

Cuando se buscan formas para reducir los costes de los residuos de envase, resulta importante tener una visión global con el objetivo de identificar el **coste real de los residuos**. Este coste real incluye no sólo el coste de la eliminación, sino también el coste de las materias primas y los costes derivados de su manipulación y gestión interna como residuo sólido. Siguiendo con esta visión más amplia, además del envase tal y como se define **legalmente**, existen numerosos elementos que cumplen una función de soporte, presentación o para la aplicación de los productos que pueden comercializarse junto con los productos o como parte de ellos. Algunos ejemplos son los palos de las piruletas o aplicadores de productos. Aunque no constituyan un residuo de envase en el sentido legal de la palabra, sí que utilizan materias primas y otros recursos.

El tipo de razonamiento que se aplica en esta Guía en relación con la reducción del uso (obligado) de envase se puede aplicar igualmente a la reducción de residuos en el suministro de dichos productos auxiliares o accesorios, lo que permite pensar en recortes similares de gasto. Por este motivo, y en función de la visión más amplia de los residuos de envase, se han incluido en las recomendaciones que se ofrecen en esta Guía.

¿Cómo se utiliza esta Guía?

La aplicación de esta Guía le brinda la oportunidad de conocer el uso que hace del envase - ¿Sabe cuánto envase utiliza y manipula en la actualidad?, ¿Puede reducir la cantidad de envase que utiliza?, ¿Cuánto necesita en realidad?, ¿Está utilizando más materias primas de las que necesita el producto?, ¿Puede reutilizar el envase actual?.

go erabiltzen bada. Adibidez, bi geruzako film erretraktila alferrik galdutako hondakina da produktua behar bezala babesteko geruza bakarra nahikoa bada.

- Zure enpresara bilgarri gisa sartzen den eta hondakin gisa irteten dena, ezabatze-kostuak dituelarik. Horiek, besteak beste, espe- zifikazio egokiak betetzen ez dituzten bilgarriak, garraiatzeko bilgarri gehiegi erabiltzea edo garraiatzean hondatutako materialak dira.

*Bilgarri-hondakinen kostuak murrizteko modua bilatzen hasteko ikuspegi osoa izatea komeni da, **hondakinen kostu erreala** identifikatu ahal izateko. Kostu erreala horrek ezabatze-kostua ez ezik, lehengaien kostua eta hondakin solido gisa barnean manipulatuta kudeatzeak eragindako kostuak ere hartzen ditu. Ikuspegi zabal horrekin jarraituz, **legez** definitutako bilgarriaz gain, produktuekin batera edo horien osagarri gisa komertzializa daitezkeen produktuen euskarri, horiek aurkezteko edo aplikatzeko diren elementu ugari dago. Hona adibide batzuk: piruleten makilak edo produktuak emateko hainbat gailu. Legez bilgarri-hondakin izan ez arren, lehengaiak eta beste baliabide batzuk erabiltzen dituzte.*

Bilgarrien (nahitaezko) erabilera murrizteari dagokionez, Gidaliburu honetan erabiltzen den arrazoitzeko modua, produktu lagungarri edo osagarri horiek hornitzean hondakinak murrizteari era aplikatu dakioke. Eta beraz, gastua haietan bezala murriz daiteke. Horregatik eta bilgarri-hondakinen ikuspegi zabalagoa erabiliz, Gidaliburu honetan ematen diren gomendioetan sartu egin dira.

Gidaliburu hau nola erabili behar da?

Gidaliburu hau aplikatuz bilgarriak nola erabiltzen dituzun hobeto ezagutuko duzu. Ba al dakizu zenbat bilgarri erabili eta manipulatzen duzun?, Murriz al dezakezu orain erabiltzen duzun bilgarri-kopurua?, Benetan zenbat behar duzu?, Produktuak behar dituenak baino lehengai gehiago erabiltzen ari al zara?, Orain erabiltzen duzun bilgarria berriz erabil al daiteke?.

Si observa detenidamente el modo en que utiliza su envase y cuánto se desaprovecha, podría ahorrarse mucho dinero. Esta Guía incluye ejemplos de cómo las empresas han logrado ahorrar cambiando su enfoque con respecto al envase: en determinados casos, se ha registrado un ahorro superior a los 50 millones de ptas. (300.000 €). Descubra cómo su empresa también puede ahorrar en envases.

Esta Guía le proporciona numerosas recomendaciones para reducir los costes minimizando el empleo de envases y los residuos de envase, así como el correspondiente consumo de materias primas. Las recomendaciones, que abarcan los tres tipos primarios de envase descritos en la página 2, se han clasificado en las siguientes categorías:

- suministro y transporte de envase
- recepción del envase
- manipulación del envase
- reutilización, reciclaje y eliminación del envase

A la izquierda de cada recomendación, según corresponda, se mostrará un icono que indica el modo en que dicha recomendación le permitirá reducir sus costes:

H

Cuestiones referidas principalmente a buenas prácticas operativas y relativamente sencillas de aplicar con costes asociados muy bajos o nulos. El ahorro debería producirse a corto plazo.

C/S

Estas recomendaciones afectarán, en distinta medida, a su(s) proveedor(es) o cliente(s) y se traducirán con toda probabilidad en ventajas compartidas y en un ahorro de costes.

El ahorro potencial dependerá siempre de las instalaciones y de la empresa. A pesar de que la mayoría de las recomendaciones implican un coste mínimo o nulo, deberá evaluar todos los requisitos de inversión de capital caso por caso.

Utilice esta Guía como una rápida herramienta de referencia con el fin de ayudar a su empresa a desarrollar un enfoque sistemático en lo que respecta a la gestión del envase. El Servicio de Información Ambiental para la empresa vasca IHOBE-Line en el teléfono 900 15 08 64, también le puede ofrecer una orientación sobre los pasos que se deben seguir o dónde acudir para solicitar ayuda adicional.

Bilgarriak nola erabiltzen dituzun eta alferrik zenbat galtzen den ondo aztertzen baduzu, diru asko aurreztuko duzu. Gidaliburu honek bilgarriei buruzko ikuspegia aldatuta dirua aurreztu duten enpresen adibideak dituzu. Batzuetan 50 milioi pezeta (300.000 €) baino gehiago aurreztu dituzte. Ea zure enpresak bilgarritan zenbat aurrez deza-keen!

Gidaliburu honek bilgarri gutxiago erabiliz eta bilgarri-hondakinak minimizatuz, eta, beraz, lehengai gutxiago erabiliz, kostuak murrizteko gomendio ugari emango ditu. 2. orrialdean deskribatutako oinarritzko 3 bilgarri-motak hartzen dituzten gomendioak honako kategoriatan sailkatu dira:

- bilgarrien hornidura eta garraioa
- ontziak hartzea
- ontzien manipulazioa
- ontziak berriz erabiltzea, birziklatzea eta ezabatzea

Gomendio bakoitzaren ezkerretara, gomendio horrek kostuak murrizten nola lagunduko dizun erakusten duen ikonoa (dagokiona) egongo da.

Eragiketetako ohitura onei buruzkoak dira batez ere eta aplikatzeko nahikoa errazak eta kostu txikikoak edo kosturik gabeak. Aurrezkiak epe laburrean nabaritu beharko lirateke.

Gomendio hauek zure hornitzaileari/edo bezeroari/edo nolabait eragin egingo diete eta seguraski guztientzako abantailak izango dira eta dirua aurreztuko duzue.

Aurrez daitekeena instalazioen eta enpresaren araberakoa izango da beti. Gomendio gehienek kostua oso-oso txikia edo kosturik gabekoak izan arren, kasu bakoitzean behar den kapital-inbertsioa aztertu beharko duzu.

Erabil ezazu Gidaliburu hau erreferentzia-tresna azkar gisa, bilgarrien kudeaketari dagokionez zure enpresak ikuspegi sistematikoa gara dezan. IHOBE-Line euskal enpresarentzako Ingurugiro Informaziorako Zerbitzuak ere (Telefonoa: 900 15 08 64) emango ditu jarraitu beharreko urratsen edo laguntza gehiago behar izanez gero nora joan behar duzunaren berri.

¿Por qué debería reducir sus envases?

Siete buenas razones

1 Menores costes de envase = mayores beneficios = gestión empresarial adecuada. Incluso las empresas que tienen que cumplir con los requisitos legales en relación con su envase pueden aplicar y comprobar la validez de la afirmación. Las empresas que gestionan el uso de sus envases ahorran dinero y obtienen mayores beneficios. ¿Puede permitirse no unirse a ellas?. Los ejemplos de empresas reales que se describen en la Guía le muestran cómo otras empresas están aplicando estas recomendaciones para obtener beneficios. En el Anexo 3, al final de esta Guía, se puede encontrar un ejemplo detallado de empresa que ha aplicado estas recomendaciones para la minimización de los residuos de envase.

2 La reducción del envase y embalaje constituye una ventaja para usted y para el medio ambiente. Se pueden lograr ahorros significativos, equivalentes incluso a un 1% del volumen de ventas, gracias a la introducción de un programa de minimización de residuos (Producción Limpia) bien estructurado. Replantearse el uso de envase constituye un buen punto de partida y un área donde cambios simples y económicos pueden generar ahorros sustanciales y reducciones significativas en sus niveles de eliminación de residuos.

Bilgarriak zergatik murriztu behar ditut?

Zazpi arrazoi bikain

1 Bilgarri-kostu txikiagoak = posible handiagoak = enpresa-kudeaketa egokia. Bilgarriei dagokien legebetebeharrak dituzten enpresek ere, hori aplikatu eta baieztapen hori egia dela frogatzeko. Beren bilgarrien erabilera kudeatzen duten enpresek dirua aurreztu eta posible handiagoak lortzen dituzte. Ez ote zara horien multzora sartuko?. Gidaliburu honetan deskribatzen diren enpresa errealean adibideek beste enpresa batzuk posible lortzeko gomendio horiek praktikan jartzen ari direla erakusten digute. Gidaliburu honen amaieran, 3. Eranskinean, bilgarri-hondakinak minimizatzeko gomendio hauek aplikatu dituen enpresaren adibide zehatza duzu.

2 Ontzi eta bilgarriak murriztea abantaila da zuretzat eta baita ingurugiroarentzat ere. Ongi egituratutako hondakinak minimizatzeko programa (Produktzio Garbia) txertatuta, aurrezki nabarmenak lor daitezke; salmenta-bolumenaren %1 ingururainokoak. Bilgarriak nola erabiltzen diren pentsatzea abiapuntu egokia da eta aldaketa sinple eta merkeak egin da hondakinen ezabatze-mailetan diru asko aurreztu eta hondakina nabarmen murriz daitezkeeneko eremua da.



3 La minimización en origen de los residuos de envase permiten disminuir los costes en origen. Tenga en cuenta la jerarquía de gestión de residuos a la hora de considerar sus opciones. Trate de encontrar modos para **eliminar** los residuos de envase en origen – es la mejor opción para el medio ambiente y constituye la ruta más corta para conseguir ahorros económicos. A continuación, debería tratar de **minimizar** los residuos, o al menos, **reutilizarlos**, es decir, utilizar el envase con el mismo fin de forma que no se precise un nuevo procesado. Si estas opciones no son viables, considere **reciclar** los residuos de envase fuera de su organización, por ejemplo, convirtiéndolo en papel o cartón desmenuzado por ejemplo para canastas de animales domésticos. La incineración con recuperación energética puede constituir una opción atractiva. Finalmente, el **vertido** debe ocupar el último puesto, ya que es la menos beneficiosa de todas las opciones.

4 Las empresas no suelen contabilizar el envase que utilizan, sus residuos de envase y los costes asociados. Si pretende reducir sus costes de envase, deberá conocer previamente el origen de todos los costes referidos a la producción, uso y eliminación de los materiales de envase. Al igual que en otros tipos de residuos, gran parte de estos costes pueden estar ocultos aunque afecten en gran medida a los resultados de su empresa. Además del coste de los materiales, asegúrese de incluir por cada proceso los costes de: la mano de obra; el almacenamiento de residuos; el vertido de residuos; el cumplimiento de la legislación; y requisitos específicos de su cliente / proveedor.

3 Bilgarri-hondakinak jatorrian minimizatzeak kostuak jatorrian murriztea eragiten dut. Ditutun aukerak aztertzean, hondakin-kudeaketaren hierarkia kontuan izan ezazu. Bilgarri-hondakinak jatorrian **ezabatze**ko moduak aurkitzen saia zaitez, horixe baita ingurugiroarentzat onena eta dirua aurrezteko biderik motzena. Ondoren, hondakinak **minimizatzen** edo, besterik ezean, **berriz erabiltzen**, alegia, berriz prozesatu behar izan gabe, bilgarria xede bererako erabiltzen, saiatu beharko zenuke. Aukera horiek bideragarriak ez badira, bilgarri-hondakinak kanpoan **birziklatzea** azter ezazu: adibidez, txiki-txiki egin-dako paper edo kartoi bihurtzea, etxe-abereentzako saskiak egiteko esate baterako. Energia berreskuratuz erraustea ere aukera erakargarria izan daiteke. Azkenik, **botatzeak** azken lekuan egon beharko luke; izan ere aukera guztietan onura gutxien duena baita.

4 Enpresek ez dituzte erabiltzen duten bilgarria, bilgarri-hondakinak eta horrekin zerikusia duten kostuak kontabilizatzen. Bilgarriaren kostuak murriztu nahi badituzu, biltzeko materialen produkzio-, erabiler- eta ezabatze-kostu guztiak eza-gutu beharko dituzu. Beste hondakin-mota batzuetan bezala kostu horiek ezkutuan egon daitezke, nahiz eta enpresaren emaitzetan eragin handia izan. Materialen kostuez gain, sar itzazu prozesu bakoitzean eskulanaren, hondakinen biltegiatzearen, hondakinak botatzearen, legeria betetzearen eta zure bezero/hornitzailearen berariazko eskakizunak betetzearen kostuak.



5 La eliminación o reutilización del envase reducirá los costes y las obligaciones legales. Para muchas empresas, la presión legislativa ha supuesto el estímulo que necesitaban para reducir el uso de envase y los residuos. Reduciendo la cantidad de envase empleado se reducirán las obligaciones legales a las que debe enfrentarse su empresa y el coste de su cumplimiento. Los documentos de **CONFEBASK** señalados anteriormente exponen de forma detallada las normativas sobre residuos de envases y quienes se ven afectados por ellas. Para mayor información póngase en contacto con IHOBE-Line 900 15 08 64. Incluso aunque su empresa no esté obligada a cumplir determinados aspectos de la normativa, podría verse afectada por las medidas que adopten otros integrantes de su cadena de proveedores que deseen reducir el empleo de envases.

6 La gestión del envase ofrece amplios beneficios. Las empresas que optimizan el uso de envases ahorran dinero de forma directa en los costes de envase, y también en la reducción de los daños que sufren los productos, de los costes de eliminación de residuos, del aumento de la eficiencia y de la reducción de los costes de transporte. También se benefician de una

5 Bilgarriak ezabatzeak edo berriz erabiltzeak kostuak eta lege-bete-beharrak murriztu egingo ditu. Enpresa askorentzat legeen presioa izan da bilgarrien erabilera eta hondakinak murrizteko behar zuten bultzagarria. Erabilitako bilgarriak murriztuta, zure enpresak bete behar dituen lege-obligazioak gutxiago izango dira eta, beraz, baita horiek bete beharrak sortzen dituen kostuak ere. Lehenago aipatu ditugun **CONFEBASK**en agiriak zehatz-mehatz azaltzen dituzte bilgarri-hondakinei buruzko araudia eta horiek nori eragiten dien. Informazio gehiago behar izanez gero, dei ezazu IHOBE-Line-ra (Tel.: 900 15 08 64). Nahiz eta zure enpresak araudiko hainbat alderdi bete behar izan ez, bilgarri-erabilera murriztu nahi duen zure hornitzaileetako batek hartutako neurriek zeuri ere eragin egin diezazuke.


6 Bilgarriak kudeatzeak posibleak sortzen ditu. Bilgarrien erabilera optimizatzen duten enpresek bi modutara aurrezten duten dirua: zuzenean, bilgarrien kostuak txikiagoak direlako, eta zeharka, produktuek kalte gutxiago izaten dituztelako, hondakinak ezabatzearen kostuak murrizten direlako, eraginkortasuna areagotzen delako eta garraio-kostuak murrizten direlako. En-

imagen empresarial más positiva, además de ser conscientes de que sus actuaciones les permitirán cumplir la legislación actual y futura.

7 El tiempo que se invierte en la gestión de los envases nunca es tiempo desaprovechado. Casi siempre se puede mejorar un sistema existente. Los cambios efectuados en el envase pueden reducir de forma significativa el coste de los materiales y contribuir a minimizar los daños en los componentes y productos.

presa-irudia positiboagoa ere bere alde dute eta, gainera, badakite beren jarduerekin oraingo eta etorkizuneko lege-ria betetzeko egoeran egongo direla.

7 Bilgarriak kudeatzen pasatutako denbora, sekula ez da alferrik galdutako denbora. Sistemak ia beti dute zer hobetu. Bilgarrietan egindako aldaketek nabarmen murriz dezakete materialen kostua eta osagai eta produktuetan gerta daitezkeen kalteak minimizatzen lagun dezakete.



Recomendaciones para ahorrar en los costes

Suministro y traspaso de envase

El envase que suministra – práctica y uso de materiales

Al eliminar o minimizar los materiales de envase que utiliza para el suministro de sus productos, puede reducir sus costes de materias primas de envase y minimizar los residuos de envase a las empresas a las que realiza el suministro. Si anima a sus proveedores a actuar del mismo modo, también podrá reducir sus costes. Estas medidas también le ayudarán a cumplir lo dispuesto en las Normativas sobre envases y residuos de envases de 1997, situándole en una posición óptima de cara a la futura legislación. Llame al Servicio de Información Ambiental para la empresa vasca IHOBE-Line 900 15 08 64 para más información acerca de la actual legislación sobre envases.

Recuerde la jerarquía en la gestión de los residuos. Analice todos los tipos de material de envase que utiliza, manipula o coloca en el mercado. ¿Son necesarios?. Si la respuesta es negativa, elimínelos. En los casos en que no puedan eliminarse, ¿se puede reducir la cantidad empleada?, ¿pueden ser reutilizados por

Kostuetan aurrezteko gomendioak

Bilgarri-hornidura eta –eskuladatzea

Hornitzen duzun bilgarria –materialen praktika eta erabilera

Zure produktuak merkaturatzeko erabiltzen dituzun bilgarriak ezabatu edo minimizatzean, bilgarrietako lehengaien kostuak murriz ditzakezu eta hornitzen dituzen enpresek bilgarri-hondakin gutxiago izango dituzte. Zure hornitzaileak gauza bera egin dezaten konbentzitzen badituzu, kostuetan era dirua aurreztuko duzu. Neurri horiek Bilgarriei eta bilgarri-hondakinei buruzko 1997ko araudia betetzen ere lagunduko dizute eta etorkizunean indarrean jar daitekeen legeriaren aurrean ere egoera hobean egongo zara. Bilgarriei buruzko oraingo legeriari buruzko informazio gehiago behar izanez gero, dei ezazu Euskal enpresarentzako Ingurugiro Informazioko zerbitzura, IHOBE-Line-ra (Tel.: 900 15 08 64).

Gogora ezazu hondakinen kudeaketaren hierarkia. Azter itzazu erabiltzen, manipulatzen edo merkaturatzen dituzun bilgarrien material-mota guztiak. Beharrezkoak al dira?. Erantzuna ezezkoa bada, bazter itzazu. Kendu ezin badira, material gutxiago erabil al daiteke?. Zuk zeuk, hornitzaileek edo bezeroek



ALGUNAS VECES
EL ENVASE ES ESENCIAL
BATZUETAN ONTZIA
FUNTSEZKOA DA

usted, sus proveedores o sus clientes?. Si la respuesta es negativa, ¿pueden reciclarse?.

Polaroid Ltd. ha eliminado completamente el uso de poliestireno expandido (EPS) en sus cajas expositoras para cámaras. El nuevo diseño de la caja ha permitido reducir su tamaño facilitando el transporte de un mayor número de unidades en cada palet, sin incrementar el número de artículos dañados. Sólo esta medida está suponiendo que la empresa ahorre más de 50 millones de pesetas (300.000 €) al año.

berriz erabil al ditzakete?. Erantzuna ezezkoa bada, birzikla al daitezke?.

Polaroid Ltd. enpresak erabat utzi dio kamerentzako erakuskutxetan poliestireno hedatua (EPS) erabiltzeari. Kutxen diseinu berriari esker, tamaina txikiagoa da eta palet bakoitzean unitate gehiago garraia daitezke, hondatutako artikuluko kopurua areagotu gabe. Neurri horri esker, enpresa urtean 50 milioi pezeta (300.000 €) ari da aurrezten.

2

¿Qué tipo de envase necesita? Considere todos los envases que utiliza – primario, secundario y terciario. Trate de reducir el uso de envases de forma generalizada sin que su finalidad se vea afectada – *no se debe compensar una reducción de un tipo de envase mediante el aumento desmesurado de otro tipo.*

Nolako bilgarria behar duzu? Azter itzazu erabiltzen dituzu bilgarri guztiak – lehen, bigarren eta hirugarren mailakoak. Saia zaitez bilgarrien erabilera, oro har, murrizten helburua desitxuratu gabe – ez da bilgarri-mota bat baztertu eta beste bat itxuragabe erabiltzen hasi behar.

UEE (Unión Española de Explosivos, S. A.) está aplicando con éxito la reducción de envases y embalajes por eliminación total de los mismos, mediante la modificación del modo de suministro al cliente. En efecto, se ha efectuado la sustitución del explosivo tipo ANFO vendido en sacos de plástico de 25 kg. por el mismo explosivo servido a granel en camión cargador que accede directamente a las áreas en las que se realizan las voladuras (minas, canteras, obras públicas, etc.). Este suministro a granel ha de ser previamente aceptado por el cliente, ya que su posibilidad de utilización depende de las condiciones locales de cada voladura considerada.

Recientemente, UEE ha logrado elevar de manera continua e importante el tonelaje de explosivo tipo ANFO suministrado a granel. A nivel estatal y tomando como base 100 en 1997, se llegó a 122 en 1998, 128 en 1999 y estamos actualmente en 165 (valor anualizado) en el periodo de Enero a Mayo 2000.

Los ahorros directos derivados de estos porcentajes servidos a granel, se pueden estimar en un mínimo de 32 millones de ptas. al año, a lo que hay que sumar ahorros adicionales ya que se eliminan también los

UEE (Unión Española de Explosivos, S. A.) enpresa arrakasta lortzen ari da ontzi- eta bilgarri-kopurua murrizteko lanean. Ontzi eta bilgarriak erabat baztertu ditu, bezeroa hornitzeko era aldatuta. Izan ere, plastikozko zakuetan saltzen zen 25 kiloko ANFO erako lehergaiaren ordeztu, lehergai bera ontziratuta gabe kamioi kargatzailez saltzen dute. Kamioia zuzenean leherketak egiten diren lekuetara (meatzak, harrobi, obra publiko eta abarretara) joaten da. Lehergaia ontziratuta gabe hornitzea aurrez onartu egin behar du bezeroak, zeren erabiltzeko aukera leherketa bakoitzerako bete behar diren baldintzen arabera baita.

Azkenaldian UEE enpresan etengabe eta nabarmen egin du gora ontziratuta gabe hornitutako ANFO motako lehergai-kopuruak. Estatuko salmentei dagokienez eta 1997. urtearentzat 100 kontsideratuz, 1998an 122ra heldu zen, 1999an 128ra eta orain, 2000ko urtarila-maiatza denboraldian, 165ean dago (urte osora estrapolatutako balioa).

Ontziratuta gabe zerbitzatutako ehuneko hauengatik izandako zuzeneko aurrezkiak urtean gutxienez 32 milioikoak direla kalkulatu daiteke. Horrez gain, gehigarri gisa beste aurrezki batzuk ere kontsideratu behar dira.

5

3

materiales de palletización (pallet, film estirable, flejes) y el coste de mano de obra de disponer los sacos en los pallets, todo ello de menor cuantía y de más difícil evaluación.

No obstante, para una evaluación global del ejemplo habría que considerar que la utilización de carga a granel supone una inversión en camiones especiales y la necesidad de mano de obra especializada. A efectos indicativos, el coste de adquisición de cada unidad cargadora puede estimarse en aprox. 20-25 millones de pesetas.

¿Se podrían reducir sus necesidades de envase con cambios mínimos en su producto o en la producción? De nuevo le recomendamos que considere todos los aspectos. ¿Es necesario que sus productos tengan una forma determinada?, ¿Se facilitaría el envasado con materiales alternativos?, ¿Se puede mejorar la manipulación de los productos?. Analice todas las novedades de diseño con asociaciones involucradas, y consulte los planes sectoriales para prevención de envases de diferentes organismos como Ecoembes o Ecovidrio (consulte el Anexo 2).

4

Optimice el diseño de su envase de modo que se logre la protección, imagen y suministro adecuado del producto haciendo uso de una cantidad mínima de materiales de envase. Realice pruebas con el envase con el fin de establecer los requisitos mínimos de envase en términos del tipo de material utilizado y de diseño. ¿Puede reducir o eliminar el uso de relleno al modificar el diseño del envase? Si su empresa está obligada por la legislación a elaborar Planes de Prevención de Envases estas medidas pueden ser muy útiles. Puede utilizar el ratio *peso envase/peso producto* como indicador.

Un productor de alimentos para mascotas redujo los laterales de las bandejas de transporte de cartón que se utilizaban para agrupar las cajas que contenían el producto. De este modo, logró reducir en un 49% la cantidad de cartón ondulado del diseño, reducir el uso de tinta en un 49%, alcanzando una reducción total neta del 12% en lo que respecta al uso de cartón kraft blanco, lo que supuso un ahorro anual de 26.400.000 ptas. (158.653 €).

Izan ere, paletizazioko materialak (paletak, film erretraktila eta zumitzak) eta zakuak paletetan ipintzeko eskulanaren kostuak alde batera uzten dira, horrek kostu txikiagoa eta ebaluatzen zailagoa badu ere.

Dena dela, adibide honen guztizko ebaluazioa egin beharko balitz, karga ontziratu gabe erabiltzeak kamioi berezietan inbertsioa egitearen eta eskulan espezializatuaren beharra dagoela kontsideratu beharko litzateke. Argibide gisa, kargatzeko unitate bakoitzak 20-25 milioi pezeta balio duela esan daiteke.

Zure produktuan edo produkzioan gutxieneko aldaketak eginez gero, bilgarrien beharrak murriz litezke? Berriz ere alderdi guztian kontuan hartzea gomendatzen dizugu. Beharrezkoa al da zure produktuek forma zehatza izatea? Hautazko materialak erabiliz gero, bilgarriatzea erraztuko al litzateke? Produktuen manipulazioa hobe al daiteke? Azter itzazu diseinu-berrikuntzak horretan diharduten elkarteekin eta kontsulta itzazu zenbait erakundek (Ecoembes-ek edo Ecovidrio-k) bilgarriak saihesteko dituzten sektore-planak (begira ezazu 2. eranskina).

Optimiza ezazu bilgarrien diseinua produktuaren babes, irudi eta hornidura ego-kia lortzeko. Horretarako, erabil ezazu bilgarri-materialen gutxieneko kopurua. Egin itzazu probak bilgarriekin erabilitako material-mota eta diseinuan gutxieneko baldintzak ezartzeko. Bilgarria diseinatzean betetzeko materiala murriz ala deusezta al daiteke? Zure enpresa legeriak Bilgarriak Saihesteko Planak gauzatzera behartzen badu, neurri hauek oso baliagarriak izan daitezke. Adierazgarri gisa bilgarriaren pisua/produktuaren pisua erabil daiteke.

Maskotentzat elikagaiak produzitzen zituen batek garraioa egiteko orduan produktua zuten kaxak multzokatzeko erabiltzen zuten kartoizko erretiluen ertzak txikitu egin zituen. Horrela, diseinuko kartoi uhinkatua %49 eta tinta %49 murriztea lortu zuen. Kraft kartoi zuriari dagokionez, %12ko guztizko murrizte garbia lortu zen. Urteko 26.400.000 pezeta (158.653 €) aurreztu ziren.

Atotech España S.A. es una empresa dedicada a la fabricación de productos químicos para el tratamiento de superficies y la fabricación de circuitos. De cara a la reducción de envases puestos en el mercado, se han centrado en la modificación del envase para reducir el ratio *kg envase/kg producto*. Para ello han tomado, entre otras las siguientes medidas:

- Cambio en las máquinas de llenado de control volumétrico a control másico, pasando de envasar 25 l. a envasar 30 kg., lo cual significa, en la mayoría de los casos, un mayor volumen de producto envasado.
- Utilización envases de mayor capacidad: Bidones (224 kg.) y contenedores (600, 1.000, 1.100, 1.200 y 1.300 kg).
- Nuevo diseño de las garrafas de 25 y 30 kg., reduciendo su peso

Estas medidas han conseguido reducir en 2.000.000 ptas. (12.019 €) los gastos de la empresa en envase.

Atotech España S.A. gainazalak tratatu eta zirkuituak fabrikatzeko produktu kimikoak egiten dituen enpresa da. Merkatuan jarritako bilgarriak murrizteko, bilgarriaren kg/produktuaren kg ratioa murriztearren bilgarriak aldatu egin ditu. Horretarako, besteak beste, neurri hauek hartu ditu:

- Betetze-makinak bolumen-kontroletik masa-kontrolera aldatzea: 25 l betetzetik 30 kg betetzera pasa dira. Neurri honekin gehienetan bildutako produktu-bolumen handiagoa lortzen da.
- Edukiera handiagoko bilgarriak erabiltzea: bidoiak (224 kg-koak) eta edukiontzia (600, 1000, 1100, 1200 eta 1300 kg-koak).
- 25 eta 30 kg-ko bonbillen diseinu berria. Horrekin, pisua murriztu da.

Neurri horiekin enpresak bilgarriei dagozkien gastuak 2.000.000 pezeta (12.019 €) murriztea lortu du.

5

Diseño el envase para evitar daños.

Asegúrese de que el envase cumple su finalidad, especialmente en lo que respecta a la protección del producto, ya que de lo contrario el producto, el envase o ambos podrían quedar inservibles. Examine las causas que llevan a la aparición de productos dañados - ¿se deben al diseño del envase, a la cualificación del personal, a un problema de etiquetado?

Diseina ezazu bilgarria kalteak saiheste-

ko. Ziurta ezazu bilgarriak bere helburua betetzen duela, batez ere, produktuaren babesari dagokionez; bestela, produktua, bilgarria edo biak erabilgaitz gera litezke. Azter itzazu produktu kaltetuak agertzearen arrazoiak: bilgarriaren diseinuari, langileen gaitasunei edo oker adierazitako etiketei erantzuten al diete?

6

Considere otros tipos alternativos de film retráctil.

Numerosas empresas descubren que pueden reducir el tipo de material utilizado, cambiando el espesor del film retráctil de 50 µm a 30 µm, sin que se vea afectada la protección del producto.

Kontuan hartu hautazko beste zenbait film erretraktil badagoela.

Enpresa askok jakin ahal izan dute film erretraktilaren lodiera 50 mm-tik 30 mm-ra aldatuta erabilitako material-mota murriz dezaketela, aldaketa horrekin produktuaren babesa aldatu gabe.

7

Reduzca el número de cajas/cartones que utiliza.

Considere las alternativas. En determinados casos, el film retráctil puede ofrecer el mismo nivel de protección con menos peso de envase.

Murriz ezazu erabilitako kaxa edo kartoiak kopurua.

Kontuan har itzazu hautabideak. Zenbait kasutan, film erretraktiak bilgarrien pisu txikiagoarekin babes-maila bera eskain dezake.

CIKAUTXO, empresa fabricante de caucho, ha sustituido el envase de cartón por palets de madera y jaulas metálicas en mezclas, que son devueltas por el cliente y reutilizadas en posteriores envíos de productos. Se estima que se ha evitado el consumo de alrededor de 9.815 kg de cartón.

CIKAUTXOK, kautxua fabrikatzen duen enpresak, kartoizko bilgarriak erabili ordez egurrezko paletak eta nahasteetarako kaiola metalikoak erabiltzen hasi da. Horiek bezeroak bueltatzen ditu eta produktuak bidaltzeko berriro erabil daitezke. Horrela, gutxi gorabehera 9.815 kg kartoi erabiltzea saihestu da.

C/S 8

Tenga en cuenta el contenido de metales pesados de su envase. La cantidad de metales pesados del envase está limitada en virtud de la legislación de envase y residuos de envase de 1997 (requisitos esenciales). Si usted fabrica envase o interviene en los procesos de transformación del mismo, asegúrese de conocer dichos límites. Póngase en contacto con el Servicio de Información Ambiental IHOBE-Line (Tfno. gratuito 900 15 08 64) para más información.

